



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA

2020.01.31

Tolosako Udaletxean, 2020ko urtarrilaren hogeita hamaikan, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Jose Francisco Amantegi Zubiria
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Egoitz Sorozabal Iturain
Xabier Balerdi Tolosa
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Kristina Pelaez Errazquin
Aitana Amondarain Esquisabel
Aitzol Garcia Azurmendi
Olatz Artola Apezteguia
Ander Figuerido Zubiria
Garbiñe Marzol Ormazabal
Xabier Martinez Quinquilla
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2019ko abenduaren 19ko Osoko Bilkurakoa.
2. Onartzea Tolosako Udalerriko biztanleen zifra ofiziala.
3. Onartzea Udaleko kideen informazio publikoko eskubidea arautzen duen erregelamendua.



TOLOSAKO
UDALA

4. Onartzea 2018ko Udal Sektore publikoaren Kontu Orokorra.
5. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.
6. 2019/2019 Dekretuaren berri ematea (kreditu aldaketa 17/2019).
7. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:
2019ko abenduaren 2tik 27ra (2019/2017-2019/2.151).
8. EHBildu Udal taldeak aurkeztutako mozioa. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko greba.
9. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. ONDORENGO AKTA ONARTZEA: 2019KO ABENDUAREN 19KO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu da.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALERRIKO BIZTANLEEN ZIFRA OFIZIALA.

Alkateak irizpen honen azalpenak eman ditu.

Antolakuntza Batzordearen 2020ko urtarrilaren 22ko irizpena.

AURREKARIAK

2019ko abenduaren 2an igorritako jakinarazpenean (Tolosako Udaleko sarrera-erregistroa: 2019/12/9koa, 10.650 zenbakiduna), Errolda Kontseiluak jakinarazi zion udal honi biztanleriaren zifra ofiziala, 2019ko urtarrilaren 1eko datarekin.

ARAUDIA

1.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduak (uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua) ezartzen dute udalek Estatistikako



Institutu Nazionalari (aurrerantzean, INE) bidali behar dizkiotela, baliabide informatiko edo telematikoen bidez, udal erroldako datuetan gertatzen diren hileko aldaketak

2.- Toki-erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 81. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek udal erroldak berrikustea onartuko dute, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari erreferentzia eginez, eta aurreko ekitaldian egindako jarduerak formalizatuko dituzte.

Horretarako, kontuan hartuko dituzte dagokion udalerriko erroldan izandako aldaketak, hileko truke-fitxategietan INEra bidali direnak, bai eta hark martxora arte hileko fitxategietan (HppmmMIA.3aA fitxategiak) jakinarazitako koordinazioaren emaitza ere.

3.- Populazio-zifraren proposamena lortzeko kontuan hartuko den informazioa erregistro bizi eta aktibo guztiak izango dira erreferentzia-datan, berrikuspenaren urteko urtarrilaren 1ean, eta hauek izango dira:

- Udalek INEra bidali badituzte, IDA-Eroldan HppmmMIA.3aa fitxategietarako argitaratutako urteko egutegian ezarritako egunera arte;
- INEren oinarrian sartu direnak;
- INEren koordinaziotik eratorritako gorabeheraren batek eragiten ez badie, eta desadostasuna sortu bada, oraindik berretsi edo ebatzi gabe badago.

4.- 2018ko uztailaren 20ko Ebazpenak,, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakariarenak eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarenak, udalei jarraibide teknikoak ematen dizkie udal erroldaren urteko berrikuspenari buruz eta biztanleriaren zifra ofizialen proposamena lortzeko prozedurari buruz, eta prozedura jarraitu ondoren, udalek urteko egutegian ezarritako epea izango dute INEk egindako eragozpenei alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek aztertu eta ebatziko ditu INEk, Ebazpen horretan jasotako irizpideak jarraituz. Ebazpenean jasotakoez bestelako argudioetan oinarritutako alegazio oro, INEk onartzen ez badu, Erroldatze Kontseiluaren esku utziko da desadostasun gisa, hark txostena egin dezan

5.- Erroldatze Kontseiluak desadostasunen berri eman ondoren, bai eta INEko presidentek Gobernuari helaraziko dion biztanleria-kopuruaren proposamena ere, azken hori udal bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, IDA-Erolda bidez deskargatzeko prest dagoen jakinaraziko zaio FppmMIA.aaa fitxategiari. Fitxategiaren erregistro-diseinua V. eranskinean jaso da, eta alegazioak baietsi/ezetsi egin dira.

6.- 743/2019 Errege Dekretuak, abenduaren 20koak, 2019ko urtarrilaren 1eko udal erroldaren berrikuspenaren ondoriozko biztanleria-zifrak ofizialtzat jotzen ditu. Tolosako udalerraren kasuan, biztanleriaren zifra ofiziala, 2019ko urtarrilaren 1ekoa, **19.667koa** da.



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, irizpen hau aztertu eta bozkatu zuen, bozketaren emaitza ondoko hau izan zelatik:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Nerea Letamendia, Garbiñe Marzol , Kristina Pelaez , Ander Figuerido eta Jose Mari Villanueva

Beraz, honako proposamen hau egiten zaio Udalbatzari:

IRIZPENA

LEHENIK.- Berri izatea 2019ko urtarrilaren 1ean Tolosako udalerriko biztanleriaren zifra ofiziala **19.667koa** dela, Estatistikako Institutu Nazionalak emandako informazioaren arabera.

BIGARREN.- Informazio hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrian eta iragarki taulan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Tolosako udalerriko biztanleen zifra ofiziala.

3. ONARTZEA UDALEKO KIDEEN INFORMAZIO PUBLIKOKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA.

EHBildu Udal taldeak eskatu du gaia gainean uztea, gehiago aztertu behar dela uste duelako. Hori horrela, proposamena bozkatu ondoren, aho batez, erabaki da gaia mahai gainean uztea.



TOLOSAKO
UDALA

4. ONARTZEA 2018KO UDAL SEKTORE PUBLIKOAREN KONTU OROKORRA.

2018ko Udal Sektorre Publikoaren kontu orokorraren espedientea informazio publikoan egoteko epea bukatu gabe dagoenez, hurrengo osoko bilkurara atzeratu da.

5. ITXITAKO EKITALDIKO FAKTUREN ONARPENA. Antolakuntza Batzordearen irizpena

Begoña Tolosa Mendiak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko zinegotzi delegatuak, azalpenak eman ditu.

Antolakuntza Batzordearen 2020ko urtarrilaren 22ko irizpena.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten den faktura hau 2018ko ekitaldiko faktura data du eta 2019an jaso zen, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2019-12-02	2018-11-16	0100.226.02.912.00 2019	BIDEBIDE TOLOSA S.L.	HAF 001 / 23	Charleville-ko delegaziorako bazkaria	475,71

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta obligazioei dagokienez. 2018ko abenduaren 31n obligazio horiek onartu gabe zeuden eta 2019ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Osoko Bilkurari dagokio.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:



TOLOSAKO
UDALA

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Itxitako ekitaldiko faktura hau onartzea:

FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KOPURUA
2018-11-16	BIDEBIDE TOLOSA S.L.	HAF 001 / 23	475,71

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** itxitako ekitaldiko faktura hori.

6. 2019/2019 DEKRETUAREN BERRI EMATEA (KREDITU ALDAKETA 17/2019).

Begoña Tolosa Mendiak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko zinegotzi delegatuak, azalpenak eman ditu:

Alkatetzak kreditu aldaketaren inguruko dekretuaren berri eman die bertaratutakoei:



TOLOSAKO
UDALA

ALKATEAREN DEKRETUA
2019/ 2091

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana.

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2019-KALD-000017-00 zenbakiduna,

Ikusita, kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera, espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	42.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		42.000,00



FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	42.000,00
GUZTIRA		42.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa eta egintza honen berri Udalbatzari ematea egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2019ko abenduaren 17a

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

**7. ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:
2019KO ABENDUAREN 2TIK 27RA (2019/2017-2019/2.151).**

Alkatetzak 2019ko abenduaren 2tik 27ra (2019/2.107-2019/2.151) bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

8. EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA. LAN, PENSIO ETA BIZITZA DUINAREN ALDEKO GREBA.

Parte-hartzeak:

... Jose M^a Villanueva Telleria (PSE-EE): "Egia dudetan nago horrelako eztabaidetan sartu edo ez. Izan ere, irakurritako eskakizun zerrenda handi hori, gaur Espainian dagoen gobernuak dagoen programan puntu hauek azaltzen direla. Gainera hemen azaltzen diren arrazoi hauek konpontzeko guk ahalmena ez daukagu, baina mahai



gainean jarri dituzue eta gustatuko litzaidake komentatzea: Pentsioak hobetzearen alde eta pentsiodunen mugimendurekin bat egitea; lan baldintza duinen aldeko borroka eskubide sozialak bermatzea; eredu sozial eta produktiboa eraikitzea; Planetaren jasangarritasunari lehentasuna eman; Aberastasunaren birbanaketa; Sektore publikoaren lidergoak eskubideen unibertsaltasuna: Euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka. Nik uste dut zuen abstentzioarekin eta PNVren aldeko bota emanez, nik uste normalizazio horiek ez da ez dira Espainiako puntuetan baina bai besteak azaltzen dira. Hori ikusita ez dut ulertzen greba egitearena. Inork ba al dago programa honen aurka? Uste dut Partidu politiko guztien programetan honelako helburuak aurki ditzakegula. Nik beti historiara jotzen dut baina hainbat esperientzia ematen digu Historiak, Espainian dagoen gobernu berriak, lehen aipatutako Bilduren abstentzioarekin sortutako gobernu, hilabete bat ez du egin oraindik, bi edo hiru aste. Normalki Gobernu berri bati 100 eguneko epea ematen zaie. Hemen ez, hemen bat batean greba bat. Gainera, greba oso tresna potentea da eta gainera kostu handiko tresna bat izaten da. Printzipioz langileek hainbat egunez soldata galtzen dute eta beti saiatzen da greba azkenengo punturaino ustea, beti saiatzen da beste baliabideak erabiltzen. Eta baliabideak agortzen direnean, agian beste irtenbiderik ez badago greba egiten da. Baina kasu honetan sortutako Gobernuarekin gutxienez, Espainian Parlamentuan dagoen gehiengo ezkertiarrekin, eseri, diagnostiko bat egin dezagun, ea posible den planteatzen diren eskaerei aurre egitea. Ez, hemen greba bat eta Katalunia zergatik ez da sartu hemen? Baina hori beste historia bat da. Ez litzateke logikoago izango bi sindikatu hauek, greba deialdia egin aurretik, Madrilgo parlamentuarekin, gehiengo ezkertiar berriarekin bildu eta gai honi buruz diagnostikoa amankomun bat egitea?. Gutxienez saiatu, ez da?, Zergatik ez da egin? Beste kontraesana da Nafarroako gobernuari, gobernu berriaren aurrekontuak zuen botoan emateko prest zaudete. Atzo telebistan ikusitako irudiek behintzat, ez dakit zenbaterainoko onuragarriak izan daiteken helburu hauentzat. Nafarroa oso konplejoa da. Nire familia hortik dator, Nafarroan denda asko zeuden irekita, piketeak dendak itxi nahian atzo. Eskuineko alderdiak indarra handia daukate. Grebaren gatazkatsuak izan daiteke, egoeraren arabera, helburua lortu beharrean askotan kontrakoa gerta daiteke. Hau da, indartsuagoak ateratzea helburu honen kontra daudenak. Gizartea zatitu egiten da, , elkarren arteko liskarra sortzen dira eta, zertarako?. Adibide batzuk, pentsiodunen arteko zatiketa, orain arte batera joan direnak orain zatituta daude; sindikatuen arteko desadostasuna; dendariak eta merkatariek. Zuek hitz egiten duzuen hemengo merkatariekin. Batzuk alde zeuden baina beste batzuek zer egin ez zekitela zeuden, oporretatik egun bat hartu beharko dugu.. Eta hori errealitatea da, enpresetako langileen artean. Zuek dakizue ni bezala, langile batzuk joan dira, beste batzuk ordutegia aldatu egiten dute, beste lantegietan eguna aldatuz, opor egunak hartuz, e.a. Niretzat hau desproposito bat da. Logikoki ados nago hemen planteatzen diren helburu guztiekin, baina momentu honetan planteatuta dagoen greba ez dut inolaz ulertzen. Nire botoa aurkakoa izango da nahiz eta dokumentu honetan dauden eskakizunak betidanik sozialistarenak izan.

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *"Tolosako EHBildutik greba zela eta eskatu genuen plenoa egunez aldatzeaz, aurreratzea baina atzeratu egin zenez mozioa aurkeztu genion gobernuari mozio hau aurkeztu genizuen elkarrekin adierazpen gisa adostasunez publiko egiteko asmotan. Hori lortu ez genuenez, EHBildutik mozioa berdin berdin erregistratzen jarraitu genuen eta niri harritzen nauena da mozio honetan eta aldarrikapen hauetan inork kontra ez badago nola ezin diren adostu*



aldarrikapen hauek, adostasunez adieraztea. Edo behintzat mahai berean eseri eta saiatu nola adostuko dugun eta zer termino erabiliko ditugun denon gustura geratzeko adierazpenarekin. EHBildutik mozioa erregistratzearekin jarraitu genuen arrazoi sinplearengatik, eskubide sozialen kartak eta barne biltzen dituen eragileen arteko adostasunez, denen artean adostutako aldarrikapenekin, erabat bat gatzelako. Tartean daude 1.080 €-ko gutxieneko pentsioak, 1.200 €ko gutxieneko soldatak, gizon eta emakumeen arteko arrakalarekin amaitzea, Madriletik etorritako murrizketak, hau da mozioan irakurri ditugun aldarrikapen guzti horiek. Kontua da greba egunaren biharamunean kokatzen garela, mozio eta aldarrikapen hauen eztabaida, balorazio jarraipen datu eta ikuspegi kontrajarrien egun bertan eta ikusi besterik ez dago, zer irudi ezberdina dagoen atzoko grebaren inguruan. Izan ere, entzun entzun ditugu jada, eta entzungo ditugu oraindik urtarrilaren 30eko inguruan ideiak ezkorrak zabaldu dituenak eta agirikoak diren arrazoei konponbidea Madriletik etorriko denaren ideia zabaltzea. Greba hau Madrileko Gobernua osatu aurretik deituta zegoen. Madrileko Gobernuak, esan duzun bezala, hilabete baino gutxiago darama eta ikusiko dugu programa hori betetzen duen edo ez. Biharamun honetan azkenean mezu hauek atzoko eguneko errealitatea eta irudiekin aurre egitea besterik ez dago, ikusi besterik ez dago atzoko eguna nolako izan zen, ze jendetza izan zen hiriburu guztietan eta eskualdeko herri nagusienetan, zer jarraipen izan zuen industrian eta merkataritzan. Baina eduki duen jarraipena nik uste dut ez datorrela egin behar delako greba eta zer egingo dugu, etxean geldituko gara eta opor eguna hartuko dugu, baizik eta jendearen ageriko arazoak begi bistan jartzeko eta benetan kalera ateratzeko eguna zelako atzokoa. Herri oso bat mugitu zen, ez zen paralizatu, mobilizatu egin zen, kalera atera zen, baina ez jarduera ekonomiko bat kaltetzeko baizik eta daukagun sistema ekonomiko honek pertsonak kaltetzearen jarraipenaren aurka. Prekarietatearen kontra eta giza baldintza duinaren alde. Baten batek, porrotaz hitz egiteko tentazio baldin badauka, gogoratzea besterik ez, mobilizazio historikoa izan dela, sektore guztietako langile, langabe, emakume, gazte, ikasle, atzerriarrak eta kanpoko jende pila baten elkartasunetik lortutako batasun eta babes irudi izugarria izan dela. Gogoratu ere bai, Madrilen aldarrikapen hauek ez dizkigutela oparituko, are gehiago, esango nuke garesti erosi beharko direla lehenik eta behin Euskal Herrian borrokatu eta lortzen ez baditugu. Izan ere, aukera egon badago, orain, borondate politikoa behar da. Horrelako beste politika mota batzuk gauzatzea, pentsioa, osasun zerbitzu publikoak defendatu eta indartzea, soldata arrakala deuseztatzea eta lan baldintza duinak bermatzea da etorkizun bizitza duina eta berdintasunaren alde benetan lan egiteko bidea. Bukatzeko, gure aldetik behintzat aldarrikapen hauek lortu daitezten lanean jarraitzeko asmo osoa eta zintzoa azaltzea eta eskerrak ematea. Eskerrak ematea hilabete guzti hauetan lanean aritu den jendeari, herriz herri batzordeetan eta taldeetan antolatzen ibili den jende guzti horri etal lantoki lantokiz aldarrikapen guzti hauek azaldu, zabaldu dituzten horiei, Beraien esker lortu delako mobilizazio eta manifestazio horietan parte hartu genuen guztion ahotsa batera eta elkarrekin entzutea, lana pentsioa eta bizitza duinaren alde.”

... Alkatea: *“Ez naiz hasiko balorazio egiten, egia da kokatuta gaudela greba egunaren biharamunean. Komunikabideetan garbi azaldu den bezala, Gipuzkoan eta gure eskualdean bereziki, Goierriarekin batera, indar gehiago izango du grebak, oro har euskal gizarteak berriz eta atzoko protestarekin defendatu nahi izan omen ziren kolektibo gehiengo nagusi batek ez zuen greba babestu. Ziur aski sindikatuen interesekin ez zetozelako bat, ezta. Atzoko greba, greba politiko bat izan zen.*



TOLOSAKO
UDALA

Hauteskunde urtea da, aldarrikapen ekonomiko eta sozialen itxura eman izan nahi izan zaiona, besteak beste, pentsioen igoera aldarrikatuz, Euskal Autonomi Erkidegoko edo Nafarroako gobernuen eskuetan ez dagoen zerbait izanik, zuek oso ondo dakizuen bezala. Datu orokorreari erreparatuta protestaren jarraipena mugatua izan zen, 2013an egindako grebarekin alderatuta hamar puntu azpitik, gutxi gora behera ,ia ia esparru guztietan. Beraz, euskal hiritarren gehienago nagusia atzo lanera joan zen. Datuak ematen ari naizenez, eta gaur goizean ere eskatu dut Udal langileen datuak eta Udal honetan langileen % 55ak babestu zuen greba. Uste dut sindikatuak bai LAB eta bai ELAk azterketa sakon bat egin beharko luketela atzoko grebaren inguruko datuak ikusita Esandakoa esanda guk ez dugu greba babestu motibazio guztiz politikoa duen greba bat delako eta Euskadik kudeatzen duen eskumenekin zerikusirik ez duelako. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako gobernuaren jarduna zalantzan jartzeko baliatu dute sindikatuen greba esan bezala hauteskunde urtea delako. Edonola ere, herritarren greba eskubidea errespetatzen dugu baina baita ere, inportantea da errespetatzea eta esatea greba egin nahi ez duenaren eskubidea printzipio demokratiko berdinean oinarrituta. Aurkeztu duzuen mozioari dagokionean ez dugu babestu bereziki bigarren puntuan aipatzen den dituzuen gaiak ez direlako Eusko Jaurlaritzaren ezta Nafarroaren gobernuaren eskumenekoa,, beraz zuen ebazpen proposamenak ez du aplikagarritasun juridikorik. Gutxieneko soldataren eta pentsioen gaia estatuko gobernuaren eskumenekoak dira, errealitate hori aldatzearen lan alde lan egin behar dugu, bai, baina dagokion tokian eta dagokin moduan. Horregatik gizarte segurantzaren erregimeneko ekonomikoaren kudeaketa eskumenak eskualdatzea eskatzen diogu guk Espainiako gobernuari. Hori ezinbesteko tresna izango baita pertsona guztien bizi kalitatea bermatu eta gizarte babeseko politikak garatzeko. Gero eta gure buruaren jabe gehiago izan orduan eta ongizate maila altuago izango dugulakoan gaude gure herrian. Eta horren alde lanean ari gara eta lanean jarraituko dugu. Eusko Alderdi Jeltzalea beti egon da eta egongo pentsio, bizitza eta lan baldintza duinen alde. Nork defenditu ditugu ba pentsioak ba Madrilen, Eusko Alderdi Jeltzalea izan da pentsiodunentzat azkenengo igoera proposatu et lortu duen alderdian. Gogora ekarri nahi nuke ere, 2018. urtean apirilaren 24an, pentsio duinen aldeko mozioa onartu genuela Osoko Bilkura honetan aho batez, EHBildu, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Alderdi sozialistaren babesarekin. Madrilen gobernu berriarekin lehentasunezko gaia izango da guretzat eskumenen eskualdaketa hori. Berdintasun eta elkartasun kontzeptuak ere gure jardun politikoen ardatzak badira erakunde ezberdinetan, Tolosan bertan urtero gizarte zerbitzuetarako bideratutako aurrekontua igo egiten da. Berdintasunaren aldeko urrats eta lanketak garrantzitsuak egin dira azken urteetan eta, baita ere, elkarbizitzaren aldekoak. Euskal Herriko eta, batik bat Gipuzkoako berdintasuna neurtzen duen indizea kontuan hartzen badugu Europa Iparraldeko herrialdeen parean gaude. Euskadi da etxebizitza izateko eskubide subjektiboa aipatzen duen autonomia erkidego bakarrenetako. Eta estatu mailako gutxieneko soldata altuena duen herrialdea. Gauzak hobetzeko ditugu? Bai, eta Eusko Alderdi Jeltzaleak, orain arte bezala, pentsio bizitza eta lan baldintza duinen alde lanean jarraituko du Tolosan, Gipuzkoa, Euskal Autonomi Erkidegoan, Madrilen eta Bruselan. Eta Eusko Alderdi Jeltzaleak Madrilen hasi berri den legealdian bultzatuko du pentsioen etorkizuna eta urteko KPIaren araberrako igoera bermatzeko sistema berria. Irrotasun osoz eutsiko diogu Euskadiko lan esparru propioa lortzeko aldarrikapenari. Eta bide horretan jarraituko dugu baina gatazka eta krispazioa baliatu gabe baizik eta elkarrizketa sozialaren bidez eta akordio zabalak ahalbideratuz.”



TOLOSAKO
UDALA

Kristina Pelaez Errazkin EHBILDUko zinegotziak mozioa irakurri du. Honela dio:

“LAN, PENSIO ETA BIZITZA DUINA URTARRILAK 30, GREBA OROKORRA

EBAZPENAREN IZENBURUA: *lan, pensio eta bizitza duinaren aldeko greba babesteko ebazpen proposamena.*

ZIOA:

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte hartzaile baten bidez. Geroztik, eskubide horien aldeko ekintzak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pensio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia gertatu da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pensio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera dela, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa dela; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar direla. Finean, bestelako eredu sozial eta produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasagarritasunari lehentasuna emateko.

Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka zein jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat eginda, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Horiek horrela, Tolosako Udalak:



1. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko grebari atxikimendua adierazi nahi dio.
2. Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie erakundeko langileei.
3. Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik:
 1. Madrilen osatu den Gobernuari eskatzen dio:
 - 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsioen murrizketak indargabetzea.
 - Zapateroren eta Raxoiren lan erreformak bertan behera uztea.
 - Presazko izaeraz, Gizarte Segurantzaren eta Enplegurako Politika Pasiboan gaineko eskumenak transferitzea.
 2. Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die:
 - 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.
 - Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiarazi ditzatela.
 - Estatu mailako hitzarmenen gaintik, hitzarmen kolektiboen ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa lehenesteko sustapen lana egin dezatela.
 - Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.
 - Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europako Batasunekoekin parekatu arte, eta lan istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.
 - Lan harremanetarako eta babes sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiaraztea.
 3. Erkidego eta lurraldeetako gobernuei eskatzen die:
 - Gizon eta emakumeen arteko soldata arrakala eta pentsio arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.
 - Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioetako iruzurra zigortzea.
 - Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiaraztea.
 - Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
 - Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.
 - Kontratazioan, sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia jardueraren arabera diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.
 - Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.
 4. Tolosako Udalean adostutako ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.”



TOLOSAKO
UDALA

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Aurkako botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, ez du onartu EHBildu Udal taldeak aurkeztutako *Lan, pentsio eta bizitza duinaren aldeko greba* izeneko mozioa.

9. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Parte-hartzeak:

... Xabier Martinez Quinquilla (EHBILDU) : *Gipuzkoa Encounter-i buruz honako hau aipatu nahi dugu. Hasteko, jakin badakigu Gipuzkoa Encounter magnitude handiko jarduera dela, badakigu beste lurralde historikoetan, bai Bizkaia eta bai Araban hiriburuan ospatzen dela eta Gipuzkoan Tolosan. Badakigu sarrerak salgai jarri bezain laster agortzen direla eta mugimendu asko ekartzen duela. Honekin azpimarratu nahi dugu ez gaudela ekimen honen aurka inongo momentuan. Behin hau esanda, ekitaldia antolatzekeo prozesuan jarri nahi dugu azpimarra, gure ustetan ez baita egokiena izan. Hasteko, jakin dugunez, aurten kantxa bat gehiago erabiliko da. Erabaki hau alde bakartasunez hartu da kiroldegiaren instalakuntzak erabiltzen dituen taldeekin hitz egin gabe, gutxienez, adostasun batera iritsi gabe. Horrelako erabakiak hartzeko ezinbestekoa iruditzen zaigu kiroldegiko instalakuntzak erabiltzen dituzten taldeekin alde aurretik, gutxienez, eztabaidatzea eta hitz egitea. Azken finean, ekitaldi honen ondorioak pairatzen dituzten kaltetu zuzenak beraiek direlako, nahiz eta bakarrak ez izan. Esan bezala, iruditzen zaigu taldeei eragiten dien kaltea murrizte aldera, gutxienez, beraiek ere entzunak sentitze aldera, ondo legokeela beraiekin elkartzea ekitaldiaren nondik norakoak adosteko edo, gutxienez, horri buruz hitz egiteko. Are gehiago, aurten kontuan izanda kantxa bat gehiago erabiltzen dela eta kalte handiago izango dutela. Honetaz gain, seguruenik ekitaldien dataki kirol denboraldiaren hasieran jartzeak taldeei denboraldia programatzen lagunduko lieke eta, kasu horretan aukera izango lukete Federazioarekin hitz ondoren aste horretan kanpoan jokatzekeo edo moldatzeko. Badakigu Tolosan gain Gasteizen eta Bilbo egiten dela eta ospe handia daukatela eta, agian, beste kasuetan esan ohi e duzuen bezala, Tolosako*



izena zabaltzeko balio duela, baina iruditzen zaigu ezin direla jarduerak aurrera eramanez soilik kanpora begira eta Tolosako herritarrentzat zentratuz jarri behar direla martxan. Hau horrela izanik, galdera da, baloratu al da ze onura ekonomikoa izango duen Tolosako herritarrengan? Edo, parte hartzen dutenetik baloratu da zenbat diren tolosarrak edo Tolosaldekoak? Izan ere, suposatzen dituen kostuak ezagutzen ditugu, 3.000 diru-laguntzak dute, kirol taldeak asteburuan erabiltzeko aukera galdetzen dute, aste horretan kirol taldeei dirulaguntza emango zaizkie entrenatzeko edo egin behar dituzten desplazamenduak kosteatzeko. Beraz, kostu ekonomikoez gain eragina dauka Tolosako herritarren bizi baldintzan baina ezagutzen ditugu benetan herriari ekartzen dizkion onurak? Horixe da galdera.”

... Joseba Ormazabal Lopez (EAJ-PNV): *“Encounterrak badaukala kanpora begira proiektzioa ez duzu zalantzan jartzen, baina bai kezka barrura begira. Tolosa Encounter da Tolosan aurrera eramatearekin ez du helburu kanpora begira ekimena baizik eta Tolosari onura ekarriko dion proiektua delako. Uste dut proiektu estrategiko baten edo askoz zabalagoa izan daitekeen proiektu txiki bat, nolabait Gobernua badago lan esparru ezberdinetan, bai Industria, bai teknologiaren inguruan, lanketa ezberdinak egiten enpresa munduarekin, hezkuntza munduarekin, eta hor kokatzen den Euskal Encounter-a, nolabait ateak irekitzea teknologia industriari, kanpora begira eta baita barrua begira ere, bertako industriari, gazteak eduki dezakeen proiektioari leihobat irekitzea. Zentzu horretan zaila izango da agian jakitea ze inpaktu ekonomikoa izango duen baina, uste dugu apustua ez dela inpaktu ekonomikoa lortzea epe motzean, baizik eta, luzera begira eta beste helburu batzuekin. Bi bilera eduki ditugu kirol taldeekin, Kirol zinegotzia bietan egonda eta ni batean. Egia da taldeek esfortzu handia egiten duela asteburu horretan eduki ditzakeen arazoekin baina beraiekin hitz egin ondoren, beraiek ere ez zituzten zalantzan jartzen proiektu horiek eduki ditzakeen onurak herrirako. Orain ari gara lantzen, beraiekin batera, nola minimizatu ditzakegun beraien dauzkaten arazoak eta hurrengo urteetara begira, adostuko dugu egutegi bat hurrengo hiru urteetarako, ez ibiltzeko azkeneko momentuan. Betidanik ibili gara azkenengo hilabeteetan proiektua gauzatu, martxan jarri eta listo Hurrengo urtean izango dugu agintaldi honetako gelditzen diren hiru urteetako. Pentsatu hurrengo urten izango dugula programazio itxia hurrengo urteetarako, agintaldi honetarako, Datak taldeekin eta antolatzaileekin, Euskalteleko talde antolatzailearekin. Bestalde, beheko kantxa beste behar batzuetarako erabiliko da, lo egiteko egun horietan, eta abar. Azkenengo urteetan Ikastolarekin moldatzen baginen ere segurtasun kontuak direla eta, beste irtenbide bat bilatu behar izan dugu. Uste dugu ekimenak merezi duela eta irtenbide bilatzen saiatuko gara.”*

... Jose M^a Villanueva Telleria, Kirol zinegotzia (PSE-EE): *“Komunikazio jardueran ez gara oso argi ibili. Izan ere, ez ginen konturatu momentu horretan bigarren kantxaren beharrarena eta hanka sartze bat izan zen. Konturatu ondoren, bilerak egin ditugu eta eskertu nahi dut hiru taldeek izan zuten jarrera aktiboa eta positiboa eta emandako argudioa ulertu zutelako. Gure konpromisoa hurrengo urteko egutegia zehaztea da, Kirol taldeak Aste Santuetan edo ekainean egitea eskatzen dute eta, guretzat ere, data horietan izateak dena erraztuko liguke baina antolatzaileei, Euskaltelekoiei ez zaie ondo etortzen plantila erdiak data horietan oportetean egoten direlako, saiatzen ari gara baina ez da erreza izango. Gure konpromisoa da martxoko bigarren astean beste bilera egitea kirol taldeekin jarraipena egiteko. Gu behar edo sortuko zaizkien beharrak erantzuteko prest*



gaude. Alde batetik, kirol instalakuntzen erabilera bideratzeko eta garraio zerbitzua eskainiz. Beti gertatzen da gauza bera edozein erakunderekin bere irudia indartzeko erabiltzen diren tresnaren edo egiten dituen irudiaren kanpainaren ondorioa neurtu ahal izateko oso zaila, oso konplexua izaten da. Tolosa askok eta askok kanpoan lan egiten dugu, baina Tolosa biztanle kopurua igotzen ari da. Duela hamabost urte 18.000 biztanle ginen eta laster 20.000 pasako gara. Horrek esan nahi du Tolosaren irudia potentzia dela, jendea etortzen dela bizitzea. Uste dut Tolosaren irudia indartsua modu askotan, baliabide askorekin egin daiteke, baina uste dut alde horretatik lan bat eginda eta lan bat egiten ari dela. Gipuzkoa Encounterreko kontua ildo horretatik dator. Errexena izango litzateke guretzat ekimen hau Irunean egingo balitz, baina hori ez da kontua, beste gauza batzuk baloratu egin behar direla. Egia da datorren urteetan zehaztatua baldin badugu eguna askoz errexago izango da taldeentzat antolamendua beste era batera prestatzea. Zaila da horrelako erabakiak hartzea baina uste dut ona dela. Hori aztertu dugu asko, kostatu zaizkigu. Irizpide objektiboa asko daukazu, futboleko begiraleak egiten duen moduan informatika munduan ba omen daude eta Tolosa etortzen omen dira begirale informatikoak, bere garrantzia omen du. Dena den, . Saiatzen gara gauzak hobekien egiten.”

- ... Alkatea: “Nik balioan jarri nahi nuke Encounter-ek ematen den aukera, hau da, bertan antolatzen diren ikastaroak inguruko enpresa guztientzako, azkeneko berrikuntza teknologikoak erakusten dira eta sortzen da horrelako topagune bat enpresa guztientzako teknologiar buruz hitz egiteko. Hori, bereziki, inportantea baita ere.”*

- ... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): “Azken bi hilabeteetan hedabide ezberdinetan Jesus Gomez Montoya Asuncion klinikako zuzendariaren propaganda kanpaina baten lekuko izan gara. Puntako klinika bat eta lehen mailako osasun arreta dugula esateaz gain, hainbat baieztapen egin ditu, besteak beste, orain burutzen ari diren lanaren ondorioz ospitale berritua izango dugula hurrengo 25 urteetarako. Tolosako EAJ hauteskunde kanpaina eta ondoren EAJ berak eta PSEk osatzen duzuen Udal gobernu honek hemendik zortzi hamar urteetarako ospitale publiko bat egin eta Asuncion Klinika zentro soziosanitario bilakatzeko asmoa adierazi duzue. Honek hasteko larritu egiten gaitu. Izan ere, Ospitale publikoaren beharra premiazkoa delako eta lehenago ere egikaritu ahal delako. Baina baita ere, zuen eskumena ez den arren enpresa pribatu batek izango duen bilakaera aurreikusi eta ziurtatzen duzuelako. Klinikako zuzendariaren elkarrizketara bueltatuz, zuek azalduko intenzioa hauetaz bera ez jakitun azaltzea. Zuek oso argi duzuenaz enpresaren buru eta jabeak ez daki ezer. Hartzekoa behintzat. Are gehiago, berak oso argi du diru publikoarekin egiten ari diren goitik beherako erreforma datorren 25 urteetan itunpeko klinika bezala jarraitzeko dela. Berak dioten bezala, diru publikoa publikoa izaten jarraituko du, baina modu pribatuan kudeatuta. Hau da, enpresa pribatu batek kudeatu dezala diru publikoarekin eta herritarren osasun arretarekin negozioa egiten. Argi dago % 35 gutxiago inbertituz ezin dela arreta berdina bermatu, ezta langileen lan baldintzak duinak ere. Langileen heren bat gutxiagoarekin aurreztu bai, baina arreta kalitatea murriztu ere bai. 2019-2023 Kudeaketa Planak ondo dioten bezala, postontzietara iritsi zitzaigun monografiko honetan ez zen hitz bat bera ere aipatzen ospitale publikoaz. Eta aurrekoa hainbat lekuetan aurki ditzakegun liburuxka hauetan, aldiz, azken orrialdean egiten zaio aipamen txiki bat, izan ere esaten de Hiri Antolamenduko plan orokorra*



berritzearekin batera zehaztuko dela bere kokalekua. Beraz, ez da San Estebaneko Plan Partzialean aurreikusten, zuek esaten zenuten bezala, eta, ez da ere lehentasunezko gaia izango. Izan ere Plan Orokorren idazketa berria legealdi honetan nekez egingo baita. Hau guztia esanda, horrenbeste errepikatzen duzuen gardentasunaren izenean, Udal gobernu honen benetako intentzioak ezagutu nahi ditugu. Asuncion klinikak Eskualde ospitale lanak egiten jarraituko du datorren 25 urteetan guztion dirua baliatuz, Gomez Montoya zein bere oinordekoen poltsikoa beteta jarraituz? Hala ez bada, diru publikoarekin egiten ari diren berrikuntza lana probestuz kudeaketa publikoko ospitale publiko berritu bezala jardungo du egungo klinikak? Edo zuek agindu bezala Tolosako Udal eremuetan ospitale publiko berri bat egingo da? Eta horrela bada, San Estebaneko Plan partziala berezia baliatuko da eta proiektua lehenbailehen egikaritu edo hurrengo legealdira itxoin beharko dugu Plan Orokorra berria garatu eta ospitale berria irekitzeko?.”

... Alkatea: *“Zalantzarik gera ez dadin, saiatuko naiz esaldi baten argi eta garbi esaten Tolosako Eusko Alderdi Jeltzaleen proposamena izan dena eta mantentzen dena da titulartasun publikoa duen ospitale publikoa. Titulartasun publikoa duen ospitale publikoa. Eskumena ez da Udalarena, Jaurlaritzarena da, eta gu gai hori lantzen joango gera dagokion lekuan eta moduan pentsio gaiarekin azaldu dudak bezala. Jesus Gomez Montoyak egindako adierazpenak bere adierazpenak dira. Berak dauka hitzarmen bat lotuta. Hemendik 25 urtekoa izango denaren baieztapena aldebakartasunez egin du nik dakidanez. Hortik aurrera. Bitarte horretan eta titulartasun publikoko ospitale publikoa dugun bitartean, orain artean bezala, Asuncion klinikarekin Udal honek duen harremana ahalik eta onena mantentzearen aldekoak gara. Horrek gaur egunean, Asuncion klinikaren kontzertazioaren bidez ematen baitu Eusko Jaurlaritzak osasun publikoaren arreta hori gure eskualdean. Bitarte horretan, Udaletxe honetan sortutako ekimen ezberdinetan Asuncion Klinikaren parte-hartzea oso ondo baloratzen da, beti baloratu izandu den bezala. Beraz, egiten diren hitzaldian informazioa emateko, gai konkretu baten inguruan parte-hartzeko Udal Gobernu honek ondo baloratzen ditu eta ez dauka horren kritika izpirik. Galdera zehatza da, zein da gure jarrera. Gure jarrera da landuko dugula titulartasun publikoa duen ospitale publikoa Tolosan.”*

... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU) : *Azkenengo gaia gure da pasa den uztailan, gu sartu berriak ginela, Imanol Agirrearen eskutitza jaso genuen eta, egia esan, nik behintzat ez nuen oso ulertu eta agur kutsua baldin bazen ere, eskutitz hark laster berriro Udalean lanean izatea espero zuela adierazten eta justizia justizia esaten bukatzen zuen eskutitza. Esan bezala, Imanol Agirre nor zen ez nekien eta bati eta besteari galdetuz jakin genuen eskutitz honen nondik norakoak eta Imanol Agirre nork zen. 2006ko ekainetik, 13 urtez, Udalean arkitekto lanetan jardun zen teknikaria zela jakin genuen 2019ko uztailan Udalak bere kontratua ez berritzea erabaki zuen arte. Jakin genuen baita ere, izan dugun erreferentziarengatik Imanol Agirre langile fina eta tekniko eraginkor bezain trebea zela. Imanol Agirrek eskutitz hartan esaldi hau jaso zuen: Udalak ere badu erronka eta ez makala, benetan garrantzia duenari beharrezko protagonismoa ematen, pertsonak pertsona gisa tratatzea eta hor sartzen dut herritarren hasi eta langilean bukatzen den eremu zabala. Esaldi hau ulertzeko komeni da jakitea kontratu ez berritzea eta erabaki aurreko hilabete luzeetan Imanol bere ohiko eginkizunetatik baztertua izan zela. Alorreko gainontzeko teknikariak lanez gainezka egon arren, bera ia lan kargarik gabe egon*



omen zen. Kontratu ez berritzearen ondorioz Imanol Agirrek demanda bat jarri zuen epaitegian Udalaren erabakiaren kontra eta orain dela gutxi epaiaren sententziaren berri izan dugu. Imanol Agirreri mugagabe ez finko izaera duen langilea dela aitortu dio epaileak eta ondorioz, kontratua ez berritzeak kaleratze bidegabetzat jo du. Epaiak bi aukera eman zizkion Tolosako Udalari, alde batetik, langilea berriz kontratatzea edo, bestetik, 80.792,82 €-ko kalte-ordaina ordaintzea. Tolosako Udalak Imanol Agirrerekin harremanik izan gabe kalte-ordaina ordaintzea erabaki zuen. Sententzian Tolosako Udalak erabili zituen argudioak irakurri ahal izan ditugu. Imanol Agirrek Udalean hamahiru urte hauetan izan duen papera eta aurrera eraman dituen lanak jakinda harridura sortu digute. Hau dena jakinda galdera asko sortu zaizkigu eta azalpenak jaso nahi genituzke. Esan bezala, Imanol Agirre teknikari eraginkor eta trebea izanda eta alorra lanez lepo egonda zergatik erabaki zenuten bere ohiko lanetatik baztertzea behar beharrezkoa zen tekniko bat galduz eta alorrari kalte nabaria eraginez?. Bestetik, zergatik erabaki zenuten Imanol Agirreri kontratua ez berritzea? Eta honekin lortuta, inork ez al zuen aurreikusitako epaiak langilearen aldeko eman zezakeenik? Udalak hedabidean jokatu duela frogatu gelditu ondoren epaiak emandako bi aukeren artean zergatik erabaki duzue ia 81.000€ko kalte-ordaina ordaintzea eta ia aldi berean arkitekto berri bat kontratatzea? Gure ustez ulertzen zaila den hautua inondik inola ere, eta pentsatzen dugu edo gure buruari galdetzen diogu ez al zen egokiagoa Imanol Agirre berriz ere kontratatzea. Alde batetik alorraren eta tolosaren ezagutza eta bere esperientziak oso lagungarria izango litzatekeelako hirigintza plana berritzen hasi behar dugun honetan eta, bide batez, dirutza hori aurreztuko genukeelako. Eskertuko genuke, beraz, galdera hauek erantzutea. Alde batetik, zergatik erabaki zenuten bere ohiko lanetatik baztertzea? Zergatik erabaki zenuten kontratua ez berritzea? Eta zergatik aukeratu duzuen kalte-ordainak ordaintzea eta ez berriz ere kontratatzea?.

... Alkatea: "Batetik, Andu, benetan esan behar dizut gai hau, langile konkretu baten egoerari buruzko gaia Osoko Bilkurara modu honetara ekartzea, baina egin dituzun galderak eta erantzungo dizkizut: Batetik, Imanol Agirre sartzen da udal honetan lanean, enpresa modura kontratatzen dira bere arkitekto eginkizunak., baina bere enpresan lan egin beharrean lan egiten du Udaletxe honen eraikin barruan Udaletxeko baliabide guztiak erabiliz, bai Eusko Alderdi Jeltzalea egon zen garaian, bai EHBildu egon zen garaian. Azken egun horietan bere ohiko eginkizunetik ez zen inolaz ere baztertua izan, beste egoera bat izan gertatu zena. Eta gertatu zen bai Personal Departamentutik bai Udal idazkariak eta bai Udal Kontuhartzailetatik arreta jarri zela eta intzidentzia bat jarri zela enpresa bateko arkitekto batek ezin zituela Udaletxeko baliabideak erabili erabiltzen ari zen bezala. Jakinarazi zitzaion hori langileari, berak bazekien egoera hori, izan ere, interinidad egoera horretan egon da urte askotan eta ez da egokia izan egoera horretan edukitzea langile bat hainbeste urteetan Udalean. Beraz, legea ez urratze aldera ba ez zitzaion eskatu Udaletxeko eraikinetik kanpora lan egitera, hori gehiegizko iruditzen zitzaigun, baina bai hainbat erreminta aldera batera uztea. Egoera horri oso urruti dago, ohiko eginkizunetatik baztertua izan zenaren baieztapena egitea. Beraz, Andu hori ez da egia eta hori garbi utzi nahi nuke. Kontratua zergatik ez zaion berritzen? Legez ezin zelako berritu. Bere lanpostu horren egoera, badakizue Arrazionalizatzeko Plan mardul bat baduela Udal honek aurreko legealdian egindakoa eta bere lanpostuaren egoera Plan horretan ere aurkezten da. Ze modu bat egokiena Administrazioan eta udaletxean lanpostu batek sarrera edukitzeko? Ba OPE batean



presentatzea. Zein zen Imanol Agirreren aukera Udaletxe honetan sartzeko? OPE batean presentatzea. Baina bazeukan beste baliabide bat. Hainbeste urte interinidad ekoeran egon ondoren, epailearengana jo zezakeen. Langile baten eskubidea da, ezta udaletxearen kontrako gauza bat. Eskubide bat da. Hori gertatu da baita ere Tolosaldea Garatzenen. Epaiketa bukatu da eta epaileak eman ditu bi aukera, bat indemnizatzea eta beste bat udaletxean jarraitzea interinidad ekoera horretan eta ezartzen du gainera soldata bat urrutiko dagoena gure udal arkitektoak duen soldatarekin. Horrek sortuko lukeen alderaketarekin eta baldintza ezberdinekin departamentuan. Beraz, sortuko luke egoera txar bat udaletxean berean, indemnizazioa azkenean kalte-ordain bat da eta da aukera bat. Hori da gure aburuz egoera honen aurrean Udalak hartu behar duen erabakia. Errezena da beste aldera begiratzea. Nik Imanol Agirrerekin harreman handia izan dut urte hauetan eta harreman ona. Errezena askotan ez da egokiena eta gure ustetan egokiena izan den erabakia hartu dugu. Bide batez, Imanolek Udala honetan egindako lan guzti hori baieztatu dezaket, berarekin asko egitea tokatu zaigulako, ona izan da, oso estimatua da herrian, eta seguraski etorkizunean bere enpresaren bitartez, orain arte bezala, Tolosarekin ere harremana izango du. Udal idazkariari zuzenduz: "Ez dakit Begoña apunteren egin daitekeen honen inguruan."

- ... Begoña Garmendia Vazquez, Udal idazkaria: "Soilik adieraztea Administrazio publikoan lan izaerako legeditik aparte, hau ez da enpresa pribatu bat, Administrazioan era iraunkorrean lan egitea suposatzen du berdintasun meritu publikitatea eta gaitasuna printzipioak errespetatzea. Orduan, gertatzen da talka bat suertatzen dela batzuetan legedi laborala eta legedi administratiboan artean. Orduan, talka horrek suposatzen du, bueno guk gure kasuan eta ez daukat inolako problemarik esateko sententzia ikusi genuen Pertsonal buruak eta nik, -bueno beste aldetik arreta deitzen dit ze iruditzen zait, publikoki ez direla pertsonen izenak horrela esan behar. Pertsona horiek duten eskubidea beraien datu pertsonalak babestuen izateko, eta nik uste dut hemen urratu egin dela bilkura honetan, baina hori alde batera utziko dut-- esan beharra dago bai Pertsonal buruak, departamentuko teknikaria eta bai nik adierazi genuen plantila sartzek, inoiz ez da egon plantilan, beti egon da kontratu administratibo batekin lotuta, Plantilan sartzea zuzenean inolako hautaketa prozesurik gabe suposatuko lukeela administrazio publikoan sartzeko indarrean dauden printzipioak urratzea. Zentzu horretan, hartu behar den ardura teknikoa eta hartu behar den erresponsabilitate teknikoa hartzen dugu inongo arazorik gabe. Gure iritziz, behintzat, Administrazioa bereiztu beharko lukeena izango litzateke langileak ez direlako "a dedo" sartzeko moduak eta prozesu baten ondorioz."
- ... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU) : "Ni nire ezjakintasunean urratu badut arauen bat onartzen dut eta arrazoi guztia izango duzue agian ez dela izan egokia izen abizenak hemen aipatu izana. Bestetik, eta pentsatzen dut patxada handiagoz esplikatuko beharko zaigula, nik ez badut ulertzen. Nik ulertzen dut era irregularrean, agian, pasa zituela hamahiru urte eta bete zituela hainbat eginkizun. Baina, bestetik, epai honen sententzia irakurrita argi eta garbi azaltzen zaizkio eskubide batzuk. Eta oso garbi adierazten du langile mugagabe ez finko izaera duela. Orduan administratiboki zer suposatzen duen eta ez dakit ezta ere, ezin ote zitezkeen epaitegira jo gabe, hau beste modu batetara moldatu. Baina behin epaiak hau esan da, ez dago inongo aukerarik. Dena den nik bai pentsatzen dut bi aukerak



daudenean eta nolabait langilea kaltetua sentitzen denean eta berak Udalean egoteko nahia adierazi duenean ezin ote den berarekin harremanetan jarri eta negoziazio batetara iritsi, posible baldin bada berriz kontratatzea.”

... Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV): “*Lehenik eta behin, esan neroni ere gogorra egiten zait honetaz hitz egitea. Besteak beste, Tolosako udaletxean Tolosa Lotzen sozietatearen bidez egon nintzen, orain hamar urte, kontratu arrendamendu babespean eta berarekin harreman zuzena izan nuen, berataz esan dezakedan guztia oso ona. Hortik aurrera, azalpenak emateko orduan hainbat datu ezagutu behar dira eta ni pleno honetan ez ditut emango. Uste dut babes pertsonalekoak dira baina noski plenoa bukatutakoan, nahi duzuenean biltzeko eta arrazoiak emateko aukera guztiak. Esango nuke horrelako gaiak, orain dela hiru edo lau legealditik datozen gaiak, non ordezkari politiko ezberdinak egon diren, non alderdi politiko ezberdinak egon diren agintean, gertatzen dena azkenean errudunak sententzia gaudenean, gobernu tokatzen zaiguna gara, baina ondorioak aspalditik datoz, eta ia beti bukaera txarra izaten dute eta soluzio ez duten gaiak izaten dira. Adibideak jarriko ditut. Orain dela hiru urte Villabonako udaletxean kasu berdina, oso antzekoa berdina bukatu zen. Ibarako udaletxean, orain dela sei-zazpi urte oso kasu berdintsua, berdina esateko, kasu guztiak izan ditzake matizazio batzuk, baina osotasunean oso kasu berdina berdina bukatu zen. Aurretik, Zumaian 2006-2007an kasu berdina bukatu zen. Bizkaiko hainbat udaletxeetan egoera berdina izan da. Hortik aurrera esango nuke ere bai, sententzia arlo sozialekoa da eta bi aukera ematen ditu, baina aukera horiren ondoren txosten juridikoak daude. Txosten juridikoak guri esaten digutena da ez daukagula aukerarik aukeratzeko. Nahi eta nahi ez kaleratu egin behar dugula. Prozesu hau ematen da, nolabait ere 2007-2019 bera egoten da kontratu arrendamentuz zerbitzupuan, horrelako gertatzen da orain arte administrazioek beste aldera begiratu dute eta gero eta gero, Tribunal de Cuentas daude, bai idazkariak eta bai Interbentorak ere beraien kapazideak gero eta murriztagoa da. Guregatik noski bide berdina jarraitzeko egon litzatekeela eta formulak bilatuko genituzke baina eskuak lotuta dauzkagu. Sententzia bat dagoenean eta bost eguneko epean erabaki hartu behar duzuenean eta txostenak garbi eta argi esaten dizutenean, sententzia hori esango du baina printzipio administratiboak badira, eta nahiz arlo sozialean arlo pribatuen zuk bi aukera izan arlo administrazioak ez dituzu bi aukera aukera bakarra daukazu eta da kaleratzea. Guk beste aukerarik ez dugu izan, baina hala eta guztiz datu gehiago badaude gauzak arrazoitzeko baina uste dut esfera pribatuan emango beharko genituzkeela, Bai diru kopuruak eta hainbat datu daude gauzak erabakitzeke eta arrazoitzeko. baina hori arlo pribatuan egingo nuke besteak beste datu pribatuak direlako.”*

... Begoña Garmendia Vazquez, Udal idazkaria: “*Adierazteko txosten horietan aipatzen genituen 2017 eta 2018 Aurrekontu legeetan xedaturikoa, non espresuki debekatzen zaie arduradun politikoei kontratazio mugagabeak egitea lehen aipatu ditudan printzipioak errespetatu gabe. Eta gainera, beraien erantzukizun pertsonala zehazten du xedapen horrek. Esan nahi dut nahi baldin baduzue aztertuko dugu beste momentu batean, baina 2017ko Aurrekontu legean, aurreneko aldiaren agertu zen xedapen hori, jarraitu zuen 2018ko aurrekontu legean eta hori da gaur eguneko indarrean dagoena, debeku espresua, Horregatik esan nahi dut sententzia da lan arlokoa baina, Estatuko Aurrekontuak arautzen duen legean, hori da pixkat arlo administratiboan administrazio publikoei mugak jartzen dizkienak pertsonala*



TOLOSAKO
UDALA

kudeatzeko, enplegua kudeatzeko politikak, aurreneko aldian sartu zen xedapen erantzukizun konkretua eta indibiduala xedatuz, kontratu lege administratiboan jarritako baldintzak betetzen ez ziren kontratazio kasuan eta bueno hori jarraitzen du indarrean orain ere.”

... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBildu): *“Bukatzeke, lehen ere esan dut, arrazoi duzu ez zen tokia horrelako gai bat ekartzeko. Guk izan ditugun azkenengo bileren izan genuen sententziaren berri eta asko kezkatu gaitu. Eman dituzue esplikazioak baina bai hala ere gustatuko litzaiguke lasai eta beste momentu batean ea nola uztartzen ditugun sententzia eta alde administratiboan ez kontratatzeke aukera ez izatea.”*

Bukatzeke, alkateak: Alderdi Sozialistako zinegotziak gogorazi didanari kasu egingo diot eta aipatu azkeneko Osoko Bilkuratik Tolosan ministra bat badaukagula eta iruditzen zitzaidan esatekoa dela.

Besterik gabe, 20:35ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA
O.e.

IDAZKARIA